


EUSKAL MUSEOA
BILBAO
MUSEO VASCO

EUSKAL ARKEOLOGIA, ETNOGRAFIA ETA KONDAIRA MUSEOA

*MUSEO ARQUEOLOGICO, ETNOGRAFICO E HISTORICO VASCO*


**Miguel de Unamuno Plaza, 4 ▪ 48006 *BILBAO* ▪ Teléfono 94 415 54 23 ▪ Fax 94 479 06 08**
**http://euskal-museoa.org ▪ museoa@euskal-museoa.org**





## Ikusleentzako Orduak

MUSEOA

Asteartetik Larunbatetara
goizeko 11,00-etatik
arratsaldeko 17,00tararte

Igandea
goizeko 11,00-etatik
arratsaldeko 14,00tararte

## *Horarios de Visita*

MUSEO

*De Martes a Sábado*
*de 11,00 a 17,00 horas*

*Domingo*
*de 11,00 a 14,00 horas*

Jules Verne

elkar

EROSKI bidaiak
*merezi duzu*

# Jules Verne



Bidaia harrigarriak

Viajes extraordinarios










**2005.KO AZAROAK 29 - 2006.KO URTARRILAK 29**

**DEL 29 DE NOVIEMBRE DE 2005 AL 29 DE ENERO DE 2006**

**Euskal Museoa / Museo Vasco** **Plaza Miguel de Unamuno. Bilbao**

## BIDAIA HARRIGARRIAK



*"1872. urtean, Saville Row-ko 7. etxean, Burlington Gardens-en (non Sheridan hil baitzen 1814an), Phileas Fogg bizi zen, .........."* Horrelaxe hasten da "Munduari itzulia 80 egunetan" kontakizuna, Jules Verne idazlearen eleberririk ezagunenetakoa. Hain zuzen ere, aurten bete-tzen da Jules Verne hil zeneko mendeurrena.

1828an Nantesen jaiotako idazle honek 65 eleberri idatzi zituen. Eleberri horietako lehenengoa, 1863an "Bost aste globoan" izenburupean argitaratu zena, Bidaia Harrigarrien barruko lehen aroan idatzi zituen liburuetako bat da. Aro horretakoak dira baita "Lurraren bihotzeraino" eta "20.000 legoa ur azpitik".

Vernek, gainezka egiten zion irudimenaren eta ideia jenialen bitartez, ilargirainoko bidaia batean eraman gintuen bere "jaurtigai-bagoian"; ozeanoaren sakonera eraman gintuen "Nautilus" urpekarian; eta "Albatros"-a erakutsi zigun, hau da, *Robur konkistatzailea* obran agertzen den helikoptero-moduko bat. Era berean, lurrari itzulia hiru hilabete baino denbora laburragoan eman ahal izatea –Suez-ko Kanala ireki ondoren 1868 eta 1879ko prentsa-artikuluetan mintzagai izan zena–, akuilua izan zen "Munduari itzulia 80 egunetan" eleberria idazteko.




Egia da, bai, ingeniari eta asmatzaile askok Jules Vernek asmatutako deskribapenak erabili izan dituztela oinarri gisan XX. mendeko aurrerapenetako asko sortzeko. Horiek horrela, esan beharra dago gure pertsonaia, oroz gainetik, munduko bazter guztietako hainbat irakurle-belaunaldiren irudimena piztu izanaren erantzulea dela. Jules Vernek lurraren erraietaraino joateko aukera eman digu, bere aparatu ezin sinetsizkoekin gure planetako bizia osatzen duten lau gaiei desafio egin die (ura, airea, lurra eta sua) eta lortu du hala gazteek nola nagusiek unibertso horietan barneratu nahi izatea, bere pertsonaia literarioek egiten duten bezala.




Erakusketa honen bitartez, bada, egile atenporal hau omendu nahi dugu. Horretarako, hainbat gailu jarri ditugu ikusgai, idazleak deskribaturiko ibileretara eramango gaituztenak eta oroz gainetik gure irudimena libre utziko duen espazio-denbora batera garraiatuko gaituztenak; hala, nagusiek beren gaztaroko irakurketak gogora ekartzeaz gainera, gazteak Verneren sormen-lanetan sakontzera bultzatu nahi genituzke.

## VIAJES EXTRAORDINARIOS

*"En el año 1872, la casa 7 de Saville Row, Burlington Gardens (donde murió Sheridan en 1814), estaba habitada por Phileas Fogg, .........."* Así da comienzo el relato de la "Vuelta al Mundo en 80 días", una de las novelas más conocidas del escritor Julio Verne de quien se conmemora el centenario de su muerte este año.

El escritor, nacido en Nantes en 1828, fue autor de 65 novelas. La primera de esas novelas, publicada en 1863 con el título de "Cinco semanas en globo", forma parte de los títulos enmarcados dentro de los Viajes Extraordinarios de su primer periodo, periodo al que también pertenecen "Viaje al Centro de la Tierra" y "20.000 leguas de viaje submarino".

La desbordante imaginación y las geniales ideas de Verne nos llevan a viajar a la luna en su "vagón proyectil", a las profundidades del océano en el submarino "Nautilus" o a conocer el "Albatros", una especie de helicóptero que nos presenta en su obra *Robur el conquistador.* Así mismo, la posibilidad de circunvalar la tierra en menos de tres meses, comentada en los artículos de prensa de 1869 y 1879 tras la apertura del Canal de Suez, fue un estímulo a la novela "La Vuelta al Mundo en 80 días".

Si bien es cierto que muchos ingenieros e inventores han utilizado como base para crear gran parte de los grandes adelantos del siglo XX las descripciones inventadas de Julio Verne hay que decir que si de algo es responsable nuestro personaje es de haber sido capaz de fomentar en todas partes del muno, la imaginación de varias generaciones de lectores. Julio Verne nos ha permitido adentrarnos en las entrañas de la tierra, ha desafiado con sus aparatos increíbles a los cuatro elementos que forman la vida en nuestro planeta (agua, aire, tierra y fuego) y ha conseguido que tanto jóvenes como adultos deseen explorar esos universos, tal y como lo hacen sus personajes literarios.




Esta exposición quiere contribuir al homenaje de este autor atemporal con objetos que nos remitan a las andanzas por él descritas, y por encima de todo a transportarnos a un espacio tiempo que deje libre nuestra imaginación y permita a los adultos rememorar su lecturas juveniles, y a los jóvenes incitarlos a indagar en sus creaciones.